

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko maiatzak 17 · 1313 zenbakia

LORATU DA UDABERRIA


ArmeriaEskola[®]

EGIN

Eman
izena!

AURREMATRIKULA

Aukerarik onena, etorkizuna duena!





Bide erraza aukeratu zenezakeen.
Hala ere, eibarzalea izatea erabaki zenuen.

Armagin izatea erabaki zenuen,
ahalegina zure ikur bihurtuta.


Ez, ez da erraza eibarzalea izatea. Inondik ere.
Eta denak ezin dira armagin izan.

Horregatik, armagin izateko zortea dugunok
erakuts dezagun harrotasunez.

**AUPA
EIBAR**



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Udaleko Gizartekintza sailak Eibarko Bizikidetza eta Aniztasunaren IV. Plana kaleratu berri du eta gai horren eta immigrazioaren inguruan jardun dugu alor horretako udal teknikariarekin, Gorka Errastirekin. Gainera, beste bideo batean Nieves Arrese atzerritartasunean adituari egindako elkarrizketa aurkituko duzue.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Zer da injustuagoa? Enpresa handi bateko goi zuzendari batek bere konpainiako langileen batez besteko soldata halako ehun jasotzea, ala nik, arlo materialean ondo bizi naizen honek, hurbil bizi diren zenbaiten ordainsaria halako bi izatea, kontuan izanik pertsona horien soldatak ez duela modurik ematen bizimodu asebetegarri baterako baldintza materialak eskuratzeko?

ANGEL TOÑA, ekonomialaria

Franz Kafkak berak ezingo luke halako egoerarik irudikatu: adinekoak dira egun zomorro bihurtzen direnak, bizitzak zaintza eskatzen duen bezain pronto karga beltza bihurtzen direnak. Karga da era berean gizarteak eskaintzen diguna: helburu efimeroetara iristeko beharrak zein urrunera begira jarri behar izatearen ikasitako joerak. Urrunekoak miopia sorrarazten digu azken batean, gertu dagoena begi aurretik desagerrarazten dugun bitartean. Kafkak, gure artera etorriko balitz eta hau guztia ikusiko balu, bere metamorfosia gero eta txikiago egiten ikusiko luke. Kaka.

GARAZI KAMIO, idazlea

Oro har, jendeak ez ditu eskaleak ikusten, edo ez du astirik begirada haiengan jartzeko. Beherago daudelako, akaso, beste maila batean, burua uzkurtuta, narras eta zarpail. Udaltzainek bakarrik ikusten dituzte, gaueko ikusmenerako beren betaurreko garestie esker. Horregatik, eskale asko karteltxo bat jartzen dute oinpean edo alde batean, norbaitek haiengan errepara dezan. Gehienetan ortografia akatsen batekin, euskaltzain edo akademikoen hizkuntza zuzenkeria zirikatzeo. Baina sintoma beti berak errepikatzen dira eskaleen aurrari: jendeak ezikusiarrena egiten du, pausoa azkartzen, ez du mugikorreko pantailatik begia kentzen. Esan daiteke eskale hori multibertsoko beste kantoi batean bizi dela. Ez dio merkatuari eragiten.

HARITZ GORROTXATEGI, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PALO → Makila. Zentzu figuratuan zigorra, kolpea. “Ondo egiñaren pagua ate ostian palua”.

PALTRIKARA / PALTRIKERA → Poltsikoa. “Etxekoandriaren paltrikeria astuna dago”.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 17**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- ZAPATUA 18**
- EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)
- DOMEKA 19**
- EGUNEZ | Mendiñueta** (Urkizu, 6)
- ASTELEHENA 20**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- MARTITZENA 21**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustín, 5)
- EGUAZTENA 22**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 23**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- BARIXAKUA 24**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

| | |
|--------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekoa | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale | |
| Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

Hildakoak

- **Paquita Hontañon Espinosa**. 78 urte. 2024-05-08.
- **Shanti Alonso Zuberogoitia**. 83 urte. 2024-05-09.
- **Concepcion Moran De Luis**. 94 urte. 2024-05-11.
- **Enrique Vidarte Marzana**. 75 urte. 2024-05-11.
- **Antonio Azpiri Larrañaga**. 92 urte. 2024-05-12.
- **Jose Enrique Aranzeta Urries**. 76 urte. 2024-05-14.
- **Jose Antonio Ereña Telleria**. 87 urte. 2024-05-15.



Ekinguneren Marketing Day jardunaldia hartuko du Ipuruak maiatzaren 24an

Ekingune ekintzaileen elkarteak antolatuta, Marketing Day ekimenaren VIII. edizioa egingo da maiatzaren 24an (barixakua), Ipuruako prentsa aretoan. Aste honetan aurkeztu dute ekimena Vanesa Hortas Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotziak, Leticia Sanchez Ekingunerako Zuzendaritza Batzordeko kide eta Kinetixen sortzaileak, eta Elisa Mangado Eibar SD Fundazioeko zuzendariak. “Nuevas dimensiones en comunicación. Claves para entender la inteligencia

artificial” izenburuko jardunaldia 09:00etan hasiko da, Imanol Teran estrategia digitalaren aholkulari eta teknologia berrien hezitzailearen ponentzia batekin. 10:30etik 11:00etara tarte bat egingo da, galderak egiteko, eta 11:00etan, kafearekin batera, networking-a hasiko da. Aurrez aurre hartu daiteke parte, edo saioa online jarraitu. Izen-ematea doan da eta hilaren 22a baino lehen egin beharko da, Ekinguneren webgunean eskuragarri dagoen inprimakia beteta.

Odola ematera joateko hurrengo saioa egunean egingo dute Untzagan

Egunean egingo du Eibarko Odol-emaileen elkarteak odola ematera joateko hurrengo saioa. Beti bezala, Untzagako jubilatu etxean izango da, 16:50etik 20:50ra. Odola eman nahi duenak telefonoz eskatu dezake hitzordua alde aurretik, 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta.



Bilgunea zabalik egongo da posta bidez bozkatu nahi dutenentzat

Ekainaren 9an Europako Parlamenturako hauteskundeak izango direla eta, posta bidez bozkatzeko eskaera-orria maiatzaren 30era arte eska daitekeela gogorarazi dute Eibarko EH Bildutik. Behin eskaera eginda, beharrezko dokumentazioa ekainaren 2ra bitartean jasoko du eskatzaileak, eta bidalke-ta, beranduenez, ekainaren 6rako egin beharko da. Posta bidezko bozka egiteko zein zalantzak argitzeko Bilgunea zabalik egongo da, arratsaldez (18:00etatik 19:30era), astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan.



Ikastaro eskaintza zabala prestatu dute KZgunean

Eibarko KZgunea ekainean emanango dituen ikastaroetan parte hartzeko izena eman daiteke. Horretarako, KZgunera joan daiteke (alde aurretik hitzordua eskatuta, 943 023 637 telefono zenbakian edo KZgunearen webgunean), telefonoz deitu, edo zuzenean Internet bidez ere eman daiteke izena. Eibarko KZgunea astelehenetik barixakura zabaltzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako Interneten begiratu (www.kzgunea.eus/ eu/ikastaroak).



Sagartegieta, Untzueta Jauregia eta Industrias Rocandio eraikinak birtualki ikus daitezke

Sagartegieta, Untzueta Jauregia eta Industrias Rocandio eraikinak birtualki ikusteko aukera ipini du eskuragarri Ego Ibarrek bere webgunean, eraikin bakoitzari buruzko informazioarekin lagunduta. Gaur egun La Salle-Azitaik ikasketxearen egoitza den Untzueta jauregia, estilo barroko eta jauregi-jatorriko eraikina da, XVII. mendekoa. Ondasun kalifikatua

(1964-02-29ko BOE) da, A mailako babes bereziko erregimenarekin. Eibarko Maltzaga auzoko muino batean kokatua dagoen Sagartegieta jauregia XVIII. mendean eraikitako estilo barroko eraikin zibila da, jabetza pribatua. Eraikina aurrigoeran dago eta kalifikatuta dago (1980-11-29ko EAO). Eta Txontako Industrias Rocandio SLXX. mendean

lehen erdiko industria-eraikina da. Udaleko Hirigintza eta Ego Ibarrek batzordeak elkarrekin ari dira lanean, herriko ondasun higiezina zaindu eta hedatu nahian. Horrela, eraikin horiek eskaneatu egin dituzte, 3Dko kartografia digitala erabilita, ondoren modu birtualean erakutsi ahal izateko. Hortik haratago, informazio geografikoko sistema bati lotutako datu-basea garatzen ari dira, herriari balio historiko-artistikoa duten eraikinei buruzko ahozko informazioa, idatzizkoa eta grafikoa bildu eta, ondoren, <https://ondarea.egoibarra.eus> helbidean herritar guztien eskura jartzeko.

Urtzi Abanzabalegiri omenaldia egiteko egitaraua antolatu dute ekainaren 2rako

Iazko urrian hil zen Urtzi Abanzabalegiren lagunek omenaldia egingo diote ekainaren 2an Unben ospatuko den “Urtzi Rugby Eguna” izeneko ekitaldian. Horretarako, goizetik hasiko den egitaraua prestatu dute: 11:00etan veteranoen partidua jokatu da (Eibar Rugby Team vs. Urtziren lagunak); 12:30ean Senior taldeen

txanda izango da (Barbarians Urtzi vs. Euskadiko errugbi selekzio ofiziala); eta 14:30ean hasiko da hirugarren denbora, Unbeko errugbi zelaian bazkaria eginda, zuzeneko musikarekin. Antolatzaileen berbetan, “bere adiskidetasuna eta laguntasuna partekatu zuten guztiekin batera, Urtzi omentzeko aukera izango da”.





Urriaren Eibarren egingo den Euskadiko Adinekoen II. Topaketa aurkeztu dute

Iaz Durangon egindako lehen topaketak izan zuen arrakasta ikusita, esperientzia Eibarren errepikatzea erabaki du Euskofederpen Euskadiko Adinekoen Federazioak. Horrela, urriaren lehen hiru lurralde historikoetako adineko ehunka pertsona bilduko dira Eibarko Astelena frontoian, elkartegintza eta boluntariotza aldarrikatuko dituen festa handi batean. Ekitaldian Euskal Herriko adineko pertsona ezagunek hartuko dute parte. Aurreko astean aurkeztu zuten topaketa eta, nagusien ordezkariak nabarmendu zuten, "65 urtetik gorako pertsonak

EAEko biztanleriaren %25 baino gehiago dira. Beraz, ezinbestekoa da longebitate berri baten inguruan lan egitea. Izan ere, adineko pertsonak gero eta presentzia eta garrantzi handiagoa dute gizarteko hainbat esparrutan". Aurreratu dutenez, topaketan euskal lurraldean bizi diren adinekoen elkarte eta kolektiboak elkartuko dira, besteak beste "elkartegintza-aren boterea eta boluntariotza sustatzeko beharra aldarrikatzeko". Ekitaldian, gainera, dantzak eta abesbatzen emanaldiak egongo dira. Amaieran, herri-bazkaria egingo da.

Adinekoen Mahaian eta Lankidetzaren Mahaian parte hartzeko prozesua abian

Udalak elkarrizketarako eta lankidetzarako bi mahai (Adinekoen Mahaia eta Lankidetzaren Mahaia) sortzeko prozesua abiatu du. Diotenez, "espazio horiek aukera bat dira konprometituta dauden toki-erakundeek aktiboki lagun dezaten gure gizartean eragin positiboa izango duten erabakiak hartzen". Parte hartzeko nahiko da, eskabidearekin batera, eskatutako dokumentazioa aurkezteko, udal webguneko "Tramiteak eta zerbitzuak" ataleko "Gizartekintzako beste eskaerak" azpialaren bidez.

tean eragin positiboa izango duten erabakiak hartzen". Parte hartzeko nahiko da, eskabidearekin batera, eskatutako dokumentazioa aurkezteko, udal webguneko "Tramiteak eta zerbitzuak" ataleko "Gizartekintzako beste eskaerak" azpialaren bidez.



Barixakuan agurtuko dute kurtsoa Esperientzia Eskolako ikasleek

Ikasten Elkarteak antolatzen duen 19. Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasturtea amaitzear dago. Beti bezala, kurtsoa egin dutenei diplomak banatzeko ekitaldia egingo dute: datorren astelehenetik aurrerantzat, 11:30ean Armeria Eskolako areto nagusian.



Dibujo eta Zeramika udal eskoletako matrikulazioa

Astelehenean zabaldu zuten 2024-2025 ikasturterako Udal Eskolen matrikulatzeko epea. Aurtengo ikasturteko ikasleen matrikulazioarako epea maiatzaren 24ra artekoa izango da. Ikasle berrientzat, berriz, maiatzaren 27an hasi eta ekainaren 20an amaituko da. Bi kasuetan, Pegoran, Herritarren zerbitzurako bulegoan, egingo da matrikulazioa. Informazio gehiagorako Eibarko Udalaren webgunean begiratu daiteke.



Mapfre Fundazioaren 'Accedemos' enplegurako laguntzak aurkeztu dituzte

Accedemos Enplegurako Laguntzen XIII. deialdia aurkeztu zuten barixakuan Mapfre Fundazioak eta Eibarko Udalak. Mapfre fundazioak babesten duen laguntzen deialdiaren bidez, 450 laguntza emango dira estatu mailan, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatutako lan-kontratu mugagabe berrietarako. Hilean 515 euro emango dira lanaldi osoko kontratuetarako, eta 310 euro lanaldi partzialeko kontratuetarako (gutxienez 20 ordu), gehienez ere bederatzita hilabeteko iraupenarekin. Deialdia aurreikusitako laguntzak eman ondoren

amaituko da, edo, bestela, ekainaren 30ean. Deialdi honetarako ezarri dituzten baldintza espezifikoek arabera, 30.000 biztanle arteko herriek dagokienez, laguntzak jaso ahal izango dituzte 9 enplegatu arteko enplegatzailerak (aurreko urteko batez besteko plantilla) eta 18 urtetik gorako enplegatu berriak kontratatzen dituztenek. Edizio honetan, langabetuak ez ezik, ikasketak amaitu eta lan-merkatuan sartzearen pertsonak ere kontratatu ahal dira. Deialdiaren oinarriak ikusteko www.fundacion-mapfre.org webgunera sartu.

Olarreagako istriputik ihes egin zuen auto-gidaria atxilotu egin dute

Domeka goizean Olarreaga auzoan auto baten eta motor baten artean izandako istripuan, hilik gertatu zen 67 urteko Ermuko motor gidaria. Istripuaren ondoren egindako ikerketen ondorioz, ihes egin zuen 41 urteko auto gidaria atxilotu zuen Ertzaintzak ordu batzuk geroago. Martitzen goizean Eibarko epaitegiaren esku laga zuten auto gidaria, eta epaileak espetxeratzeko agindua eman zuen. Atxilotua bide-segurtasunaren aurkako ustezko delituengatik, zuhurtziagabekeria larriagatik eta heriotzagatik eta gainera, istripua izan ondoren, bertatik alde egiteagatik akusatu-ta dago.



Palestinako herriari elkartasuna azaldu zitzaion Nakbaren urteurrenaren egunean

Eguaztena Nakba egunaren urteurrena izan zela eta, Palestinarekin elkartasuna adierazteko mobilizazioak egin ziren Euskal Herriko toki askotan, baita Eibarren ere. Nakba arabierazko berbak 1947-48an gertatutako palestinar exodoari egiten dio erreferentzia. Hori gogoan, Ar-

meria Eskolako ikasleek eta irakasleek argazkia atera zuten goizean. Eta arratsaldean, Deba Baitarako Kontseilu Sozialistak deituta, Untzagan kontzentrazioa egin zen, "Israelen eta Mendebaldeko bere konplizeen aurka eta palestinar herriaren askatasunaren alde".



Udaberri koloreak herriko lorategietan

Udaberrian bete-betea sartuta gaude. Eguzkia egiten du egun batzuetan, euria besteetan, eta gorabeherak dauden arren, giro epela da nagusi. Egoera horretan, natura eta lorategiak bereziki bizi-bizirik daude, eta kolore biziz janzten dute ingurunea. Herriguneetan ere, zementu artean bada ere, udaberria loratu egiten da.



Aste hauetan zehar Eibarko lorategietan loreak aldatzen ari direla ikusi ahal izan dugu. Iker Rodriguez Eibarko Udaleko zerbitzu arloko teknikariak azaldu digunez, “sasoian sasoi-ko loreak landatzen ditugu herriko lorategietan”. Horrela, urtearen sasoi honetan udaberriko eta udako loreak jartzen dituzte, eta sei hilabete geroago udazkenerako eta negurako aproposagoak diren loreak..

Eibarren zaila da lorategi kopuru zehatza definitzea. “Lorategi asko ditugu, baina txikiak. Ahal dugun tokietan sortzen ditugu lorategiak, herrian gune berdeak egon daitezela nahi dugulako”, diosku Rodriguezek. Horrela, teknikariak azaldu digunez, “sasoian sasoi-ko loreak jartzen ditugun 20 lorategi ditugu identifikatuta”.

Sasoi bakoitzean 5.000 lore inguru jartzen dituzte herriko lorategietan. Loreak zotaletan etortzen dira. “Normalean, Ipuruako futbol zelaiko belarra aldatzen denean entzuten dugu zotal berba, belarrezko zotalak jartzen baitituzte. Gure kasuan, osterara, lore-zotalak izaten dira. 16-18 urte daramatzagu teknika hori erabiltzen Frantziako ekoizle batekin eta loreak landatzeko modu horrek lana asko



Errebal Plazaia inguratzen duten lorategiak. EKHI BELAR

errazten digu. Loreak euskarri batean etortzen dira, substratuarekin eta bestelakoekin, eta horrela ez gara lore bakoitza banan-banan moztzen eta landatzen ibili behar. Pentsa zer izango litzatekeen 5.000 lore modu horretan landatzea, denbora ugari beharko genuke. Beraz, egiten duguna da lore zaharra kendu eta berria jarri”, azaldu digu Rodriguezek.

Herrian jartzen dituzten lore gehienak lorategietan jartzen dituzte, baina batzuk jardinera-zintzilikarietan kokatzen dituzte. “Herriko hainbat tokitan aurkitu ditzakegu jardinera hauek. Adibidez, Zuloagatarren eta Toribio Etxebarria kaleetan. Bertako loreak ere udaberrian eta udazkenean aldatzen ditugu”, teknikariaren berbetan.

Landare-motak eta aurrekontua

Udaberri-uda sasoirako honako landare-motak landatu dituzte, besteak beste: begoniak, salbiak, arrosa-landareak, berbena-belarra, tajete patula laranja eta mistoa... Neguan, ostera, krabelinak, mitxoletak, biolak, liliazeoak... landatzen dituzte. “Tenperatura baxuei ondo eusten dieten loreak dira negukoak. Natura jakintsua da eta udazkenean eta neguan loreak batu egiten dira, udaberrian dena loratzen den

"Begoniak, salbiak, arrosa-landareak, berbena-belarra, tajete patula laranja eta mistoa... jartzen ditugu sasoi honetan"

bitartean. Dena dela, udazkenean eta neguan badaude distira egiten duten loreak, baina egia da barietate gutxiago dagoela”, diosku teknikariak.

Aurrekontuari dagokionez, sasoiari sasoi-ko loreen landaketa bakoitzean 40.000 euro inguru gastatzen ditu Udalak.

Loreen zaintza

Herrian lorategi asko dagoenez, hauen zaintza egitea ez da lan makala izaten. “Parke handiak izango bagenitu beste kontu bat izango litzateke; baina, lorategi txiki asko dugunez, lorategi bakoitzean ia-ia zirujau lana egin behar izaten dugu. Bestalde, jorraiekin, inausketekin, ongariarekin, ureztatze kontrolarekin... zaintzen ditugu”, azaldu digu Rodriguezek.

Ureztatzeari dagokionez, aurten Udalak 50.000 euro inguruko inbertsioa egin du erre-



"Lorategietako ureztatzeak programatu ditzakegu eta, horrez gain, uraren erabileran %30 aurrezteko aukera dugu"



gadioaren kontrola hobetzeko. "Ureztatze telegestionatua jarri dugu. Horren bitartez, lorezainak ez dira lorategitik lorategira ibili behar ureztatzea kontrolatzen", kontatu digu teknikariak. "Izan ere, lorategi bakoitzak balbula eta programadore bana du, eta lehorteak daudenean banan-banan programatu behar dira, eta berdin euri asko egiten duenean ere. Beraz, ureztatze telegestionatuaren bitartez, mugikorreko aplikazio bat erabilia, botoi bat sakatu besterik ez dute behar ureztatzea aktibatzen. Edo bestela, programatzeko aukera ere ematen du eta, horrela, sentsore bakoitzak duen plubiometroak ureztatzea modu autonomoan kudeatu dezake. Adibidez, euria egiten duela antzematen badu, balbularen irekiera bertan behera lagatzen du eta ez du ureztatzen".

Teknologia horrekin bi helburu betetzen dira: "Lorezainek lorategi guztietako ureztatzeak programatzeko behar duten denbora murriztea eta, uraren erabilerari dagokionez, %30 aurreztea". Zentzu horretan, zera gehitzen du: "Udalak hiri adimentsuaren (smart city) izendapena jaso zuen Espainiako Gobernuaren aldetik, eta bide horretan egin nahi izan dugu inbertsio hau".

Loreen zaintza Udalaren ardura bakarrik ez dela adierazi du Rodriguezek: "Batuetan ikusi dugu loreak landatu bezain laster kentzen dituztela. Eta bestetik, txakurren jabeek eskatu nahi diegu animaliek ez dezatela lorategietan kaka egin eta lurra haztakatu".

Lore-eskaintza San Andres eliza parean

Azken urteetan egin den bezala, eta orain sasoiaren sasoiko loreen aldaketa egiten dela apro-



betxatuz, Udalak kendu dituen loreak herri-
tarrei doan eskainiko dizkie datorren astean.
“Loreei beste bizitza bat eman nahi diegu eta
herritarrei emango diegu hauek jasotzeko
aukera. Bestela, zakarrontzira bota beharko
genituzke”, azaldu digu Rodriguezek.

Loreak San Andres eliza kanpoan jarriko di-
tuzte eta herritarrak bertara gerturatu beharko
dira loreak jasotzera (oraindik ez dute ordua

eta eguna zehaztu). Iaz jende asko pasatu zen
bertatik eta, hori ikusita, aurtun ere antzera
gertatzea espero da.

Teknikariaren berbetan, “kontuan eduki
behar da neguko loreak direla, eta udaberrian
eta udan irautea beste kontu bat dela, baina
jendea moldatzen da”.

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

★

KASITETXE PUBLIKO
DOAKOIA

F

M

A

I

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> EGOKITZAPEN FISIKOA <input checked="" type="checkbox"/> GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA <input checked="" type="checkbox"/> NAZIOARTEKO MERKATARITZA <input checked="" type="checkbox"/> GARRAIO ETA LOGISTIKA <input type="checkbox"/> MERKATARITZA JARDUERAK |
| | <ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK <small>+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arantsaldietan.</small> <input type="checkbox"/> ADMINISTRAZIO KUDEAKETA |
| | <ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA <input checked="" type="checkbox"/> WEB APLIKAZIOEN GARAPENA <input checked="" type="checkbox"/> PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA <input type="checkbox"/> SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA |

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA

INFORMAZIOAREN

TEKNOLOGIEN

INGURUNEETAN

BOKA

BIDEO JOKODU ETA

ERREALTATE BIRTUALAREN GARAPENA

www.uni.eus

Ostola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus | @uni.eus



Iturria, armari eta guzti, Errastiren forjaren albo batean zegoen. Lantegia tokiz aldatu eta, etxeak eraikitzeko, 1975. urte inguruan parkera eraman zuten. GURE GIPUZKOA-INDALECIO OJANGUREN FUNTSA-

Errastineko forja non zegoen. Urkizuko iturria oso inportantea zen; lantegi guztietako "errekadistak" bertara joaten ziren, ura hartzera.

Inguruko lantegi guztietakoak Urkizuko iturrira

Tomasa Idarraga Zulaica
(1914 – 2008)



Arragueta kalean jaio zen, baina artean umea zela Txontako Telleria kale-baserrira joan ziren bizitzera. Ama elgoibartarra zuen; aita, berriz, eibartarra, Urkuzei baserrikoa. Txonta eta Urkizu ingurua oso ondo ezagutzen zituen eta azalpen interesgarriak eman zituen bertako toponimia, baserri, eraikuntza eta lantegien inguruan.

**Tomasa Idarragari grabatutako
pasarteetako baten transkripzioa**

[Hor Errastiñeko forjia be bazeuan, hor Urkuzu aldian, ez?] Bai, Urkuzuan baiña, Bidebarrixetan. Itturrixa badao ba oin? Hantxe aldamenian. Ha etxe haundixa einda dao oin. Han euan forjia [Eta itturrixa goguan dakazu?] Bai, itturrixa bai. Itturrixa ez da... ez da zertu, kendu. [Ta inportantia zan, ez, orduan, Urkuzuko itturrixa? Famosua.] Eneee! Taillar guztiak etortzen zian hara, e! Zera hartzera, ura hartzera. Zerak, mutikuak, errekadistak hantxe egoten zian. Dana...



MIKEL ARRILLAGA

Hileta Errezilen

Imanol Lazkano bertsolari handiak berak bizitako pasadizo eder ugari kontatzen ditu *Aho bizarrik gabe* liburuan. Honako hau memorian iltzatuta geratu zitzaidan: Joan zen behin Errezilera hileta batera, eta eliz atarian jende andana bildu zen gorpua iritsi zain. Halako batean, hilotza zekarren autoaren gidariak, gidabaimena atera berri samarra edo, behar zen lekuan sartzeko bi edo hiru atzera aurrera egin zituen, eta isiltasun hartan, Imanolen atzean zegoen batek hala xuxurlatu zion belarri ertzera:

-Hau hildakoentzako txoper hobe zegok, bizientzako baino!

Oraintxe ari da han eta hemen jende andana euskarako karneta atera nahian, begiak bota beharrean: B1, B2, C1... Gehienek ez dute gaintituko, baina gaintitzen dutenetako askok ere ez du apenas euskararik erabiliko; kotzeko gidabaimena daukan askok ere gidatzen ez duen bezala. Amaxofobia esaten diote autoa hartzeko beldurrari. Euskaraz aritzekoari, amatxofobia? Argi dago tituluak berez ez duela hitz-ikararik gutxitzen, ezta hitztripuak izateko beldurrik uxatzen ere.

Itzul gaitzen Errezilera. Baserriz josita dago hura. Hamalau-hamabost urteko edozein gaztetxok ia edozer manejatzen daki, inolako gidabaimen beharrik gabe; autoa erabiliz ikasten baita txofertzan. Ziur nago ehorztetxekoa gidari bikaina izan zela gerora.

Guk, orain, autoa bera daukagu eri. Lainopearan galtzen ari da. Gero eta gutxiago entzuten da haren hotsa. Gasolarik gabe gelditzear, eta garajea geldu, luzaro. Ondorioz, arrankatu ezinik, errepidera ateratzen dugun apurretan; beti eztulka, beti eztarria lakar. Inurriaren puzkerra bezain ahul, aldapan pattal, eta lauan tipili-topolo. Hori bai, aldapan behera, alferra lantokitik kanpora baino azkarrago.

Kilometroak egitea komeni zaio inondik ere; egunero errepidera irteea, paperak galtzea, paperez ahaztea. Txoferrak behar ditu barra-barra, Errezilgo ehorztetxekoaren modukoak ere bai. Bestela izan garbi honako hau: kostata biziko da, eta errez hil; eta guk auto bat eta bakarra daukagu, gure modeloa ez du inork inon fabrikatzen.

“Amaxofobia esaten diote autoa hartzeko beldurrari. Euskaraz aritzekoari, amatxofobia? Argi dago tituluak berez ez duela hitz-ikararik gutxitzen, ezta hitztripuak izateko beldurrik uxatzen ere”

Joan prestatzen Euskal Jaia, ate joka dugu eta

Klub Deportiboko Kultura batzordeak antolatzen duen Euskal Jaiak 59. edizioa beteko du aurten. Ohikoari jarraituz, maiatzaren azken asteburuan garatuko du egitarauaren zatirik handiena. Hala ere, badira hainbat ekitaldi aldeztu aurretik lotzen joatea komeni dena, tartean afarirako eta bazkarirako izen-emateak. Dagoeneko jaietako kartela eta triptikoa kalean badira ere, hemen doakizue horren aurrerapen bat.



Kilimak taldeak Mugi Panderoarekin joko du barixaku gaueko kontzertuan.



Euskal Jaiko pala torneorearen 3. edizioa azken fasean dago honezkeroko.

Geratu barik dantza egiteko doinuen artean

Klub Deportiboko Kezka eta Iruñeko Dugunak dantza-taldeek zapatu arratsaldean eta domeka eguerdian eskainiko dituzten dantzaldietik aparte, maiatzaren azken asteburuak izango ditu, bai, nahiko doinu dantza egiteari geratu barik eusteko. Barixakuan bertan Patxangoi elektrotzarangak aurrea hartuko die arratsaldean Kilimak eta Mugi Panderoa taldeek gauean eskainiko duten kontzertuari. Hurrengo egunean, zapatuan, eguerdi aldean txistupoteoak gaur egungo txistulariak eta txistulari-ohiak baturiko dituzte gure kaleetan, gainera Eibarko Trikitilari Gazteak lagun dituztela. Arratsaldeko kale-animazioa Bentazarreko Mutiko

Alaiak taldearen esku izango da, eta kantu-afarian ere eurek gidatuko dituzte aukeratutako kantak, Jainaga eta Narbaizak lekukoa hartu eta erromeriarekin hasi aurretik. Domekan, azkenik, arratsaldeko erromeria Gathubi taldearen eskutik izango da eta, behin hori amaituta, aurtengo Euskal Jaiari amaiera emango dioten larrain-dantzetan azken jauziak egiteko aukera izango da, Untzaga plazan lehenengo eta Deporren parean ondoren.

Goian aipatutako dantza-taldeen ikuskizunek osatuko dute jai-giroko egitaraua. Oraingoan, gainera, domeka eguerdikoa zapatu arratsaldean, 18:30ean, Deportibo aurrean Duguna eta Kezkako dantzari gatzetxoekin egingo den dantzaldia gehitu behar zaio.

Giro onean jan nahi baduzu, ez laga azken unerako

Euskal Jaiaren barruan badira bi ekitaldi jende asko biltzen dituenak, baina alde aurretik (lehenbailehen) komeni da jakitea zenbat lagun hartuko dituzten, antolatzaileen lana erraztearen aldera. Zapatuko kantu-afaria eta domekako herri-bazkaria dira horiek: baterako zein besterako tiketak salgai daude Deporrekotabernan hilaren 8tik eta aukera izango duzue erosteko datorren eguaztenera arte (maiatzak 22). Horrelakoetan urtero egiten duten bezala, bi prezio ezarri dituzte, “merkeagoa, ikasle eta langabetuentzat; eta 5 euro garestiagoa langile eta dirua dutenentzat”.

Kantu-afariaren prezioa 20 eta 25 eurokoa izango da eta kateringaren Harakintzaren ardura izango da. Horko menua honakoak osatuko dute: iberikoak hasteko, entsaladilla errusiarrak jarraian, gero txahal sukalkia eta, postre bezala, pantxineta. Edariak eta kafea prezio horretan sartzen dira. Ekitaldiaren barruan Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldeak joko dituzte afalduosteko abesbiak eta, tarte hori behin amaituta, Jainaga eta Narbaizaren erromeria saioa izango da. Herri-bazkariaren prezioa bost euro merkeago da kasu bietan, hau da, 15 eta 20 euroren artekoa. Biziminak eskainiko duen katering zerbitzuaren menua honakoak osatuko dute: hasteko entsalada, ondoren paella eta, amaitzeko, postrea. Hor ere edaria eta kafea sartzen dira aipatutako prezioetan.

Instalazio kolektiboa izango da ekimen berrietako bat

Arrate Kultur Elkartearen eskutik antolatutako “Euskal Jaia koloretan” instalazio kolektiboa izango da aurtengo berritasunetako bat. Antolatzaileek diotenez, bertan “aniztasuna, ospakizuna eta Euskal



Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako tiketak hilaren 22rako erosi daitezke.

Jaiarekiko harremana irudikatu nahi ditugu”. Horretarako, Sormen Tailerrean parte hartu nahi duten guztiak arratekultura@gmail.com helbidera edo 638 284 912 zenbakira bidali beharko dute “zure bizipena + data + aukeratutako kolorea” hilaren 19a baino lehen, hau da, domekan amaituko da epea. Jasotako aportazio guztiekin Euskal Jaiko zapatu goizean, baserritar eta artisau ferixarekin batera, Pantone itxurako banderatzoen bidez aterako dituzte kalera. Aipatutako figura horiek Deportiboaren inguruan zintzilikatuko dituzte, Adarabar elkartearen laguntzarekin.

Finaletarako bidean da Euskal Jaiko pala txapelketa

Aurtengoa hirugarren edizioa da, orain dela aste batzuetatik hona garatzen joan dena. Klub Deportiboko pilota batzordeak duen palako azpibatzerdeak antolatutako torneooko herriko txapelketan zortzi bikotek hartu dute parte, eta federatuen txapelketa irekian kopuru horren bikoitzak: “Hamasei horietatik bost bikote Eibarkoak dira”, dioskue antolatzaileek. Bi lehiaketetako finalak hilaren 25ean jokatuko dira, beste partidu guztiak bezala Astelena frontoian: zapatu horretako jaialdia 11:00etan hasiko da eta 13:00etan amaituko, “ber-



Sormen Tailerrak bere lanak erakutsiko ditu zapatu goizean zehar.

taratutako guztientzat prestatuko dugun luntzarekin”.

Baina aurretik, asteburu honean, erabakiko dira zeintzuk jokatuko dituzten bi final horiek. Herri mailako torneoak badu finalista bat dagoeneko, aurreko asteburuan lortu baitzuen txartela Sarobe-Beton bikoteak, 25-18 irabazi eta gero. Finalean aurkari izango dutena Larra-Korta eta Gisasola-Zubizarretatikoteen arteko lehiatik aterako da. Txapelketa irekiaren finalerdietan, bestalde, bikote hauek neurtuko dituzte indarrak: alde batetik, Osa-Guinea eta Olano-Agirrebeña izango dira nor baino nor; eta, bestetik, Irizar-Egiburu eta Adonis-Etxabe. Osak eta Guineak osatzen dute finalerdietan izango den herriko bikote bakarra.

“Iragana ezkutatzea ez da gure gizartean dauden zauriak sendatzeko modurik onena”

IÑAKI ZULOAGA • Idazlea



Enpresa eta politika munduan ibilbidea egin ondoren, literaturari eskaini dizkio azken urteak Iñaki Zuloagak. ‘Hijos del Gran Arquitecto’ liburu historikoa, ‘La semilla del Minotauro’ bidaia-liburua eta Xabier Gandiaga detektibearen abenturak kontatzen dituzten ‘Flores de porcelana’ eta ‘La tumba del inglés’ liburuak idatzi ondoren (trilogia amaitzen duen ‘El sillón rojo’ dihardu idazten orain), ‘El veneno de la serpiente’ eleberria kaleratu berri du.

ETaren mehatxua jasotzen duen enpresari baten istorioa kontatzen da Zuloagaren liburuak eta, fikziozko nobela izan arren, benetako gertakizunetan oinarritzen da. Idazleak aitortu digunez, eleberri hau argitaratzeko beharra zuen eta, orain, Gandiaga detektibearen abenturen azken nobela borobiltzear da.

Nolako liburu da ‘El veneno de la serpiente’?

Ahazkortasunaren aurkako liburu da. Poliki-poliki hemen gertatu dena ahazten ari gara eta euskal gizartean benetako adiskidetzak eman barik gainditu nahi da egoera. Izan ere, sasoi horretan gertatutako gauza asko konpondu barik daude. Iragana ezkutatzea ez da gure gizartean dauden zauriak sendatzeko modurik onena. Beraz, liburuan, enpresari baten istorioaren bitartez sasoi bat islatzen saiatu naiz, iraultza-zergaren sasoi. Euskadiko historiaren zatirik gogorrena izan da agian.

Nola islatzen duzu sasoi hori?

Liburuko istorioa 1983. eta 1987. urteen artean kokatzen da, eta sasoi hartan Euskadin bizi zen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa azaltzen da bertan. Eleberri eran islatzen dut hori, baina bertan esaten diren gauzak norbaiti benetan gertatu zaizkio. Gauza

guztiak ez zaizkio pertsona bakar bati gertatu, baina bai gertatu zaizkiola pertsonaren bati.

Horrelako istorio bat gertutik bizi izan zenuen, ETAk zure aita mehatxatu zuelako, ezta?

Aita Rodisa enpresako gerentea eta akzioduna zen eta, sasoi horretako enpresari gehienek bezala, ETA-ren gutuna jaso zuen. Etxez aldatu behar izan genuen eta nahiko modu serioan sufritu genuen egoera hura. Bitxia da, baina sasoi hartan gauza hauek normalak iruditzen zitzaizkigun. Liburuak idazteko orduan harritu egin naiz egoera hori horrela bizitzeaz eta hemen gertatzen ziren basakeriak ikusteaz.

Zuretzat zer izan da hurbil sentitu duzun istorioa idaztea?

Dagoeneko adin bat daukat eta beti izan dut buruan gai horren inguruan zerbait idaztea, Sebastian Azpiriren eraiketa lehen lerroan bizi izan nuelako. Eraiketa baino 10 egun lehenago berarekin egon nintzen. Izan ere, Rodisako zuzendari administratiboa eta finantzarria nintzenean, ezker abertzaleko ordezkari bat etorri zitzaidan Sebastian Azpiri lapurretan ari zitzaigula esanez, berak okela hornitzen zigulako enpresako jangelan. Pertsona horri galdetu nion ea horrek guztiak Azpiriren aurka herrian entzuten ziren salaketekin



Donostian bizi da Iñaki Zuloaga eibartarra. ARIZMENDI (DIARIO VASCO)

zerikusia zuen, baina ezetz erantzun zidan. Hori entzunda, handik gutxira hiru orduko bilera izan nuen Azpirirekin eta enpresan etorri zitzaidan ordezkariak esandakoa egia ote zen galdetu nion. Azalpenak eman zizkidan eta hainbat gairi buruz egin genuen berba, bera ere ETaren mehatxupean zegoelako. Sasoi hartan Eibarko EAJren idazkaria nintzen eta horren inguruan artikulua idatziko nuela esan nion. Idatzi egin nuen, baina tamalez ohar honekin: “Artikulu hau Sebas Azpiriren erailetaren aurretik idatzi zen”. Gertaera hark hunkitu egin ninduen, berarekin egon nintzenez guztiz abandonatuta, jazarrita eta hondoratuta zegoen pertsona bat ikusi nuelako. Gauza bihurtzen ari ziren pertsona bat zen eta talde armatuek asko egiten duten kontu bat da hori. Izan ere, errazagoa da gauza bat erailteza pertsona bat baino. Horretarako, gizatasun guztia kentzen zaie langileen eta gazte euskaldunen etsai, edo droga-trafikatzaile bihurtu eta erail ahal izateko. Hori izugarria da. Beti nahi izan dut istorio hori kontatzeko gogoia eta orain izan dut egiteko aukera, eta nobelaren barruan aurkitu daiteke, eleberriaren ardatza izan ez arren.

“Liburu honetan landu dudak gaiak barruak jan dizkit eta, argitaratu ondoren, barruan nuenari irtenbidea eman diot”

Idaztea asko kostatu zaizu?

Bai, asko. Sarritan hasi naiz idazten eta askotan lagadut bertan behera. Oraingo honetan, Luis Rodriguez Azpiolea kazetari handiak istorio hau kontatzera eta nobela kutsua ematera animatu ninduen, horrela errazagoa delako istorio dramatikoak kontatzea, kargapertsonala kentzen diolako. Idazketa amaitzean idatzitakoa bidali nion eta sasoi hartako errealitate politikoa ondo islatzen zela erantzun zidan. Beraz, argitaratzea erabaki nuen. Egia da, bestalde, nire idazle ibilbidea aintzat hartuz gero, liburu hau espezioa dela.

Egia da, orain arte liburu historikoak, poliziakoak... idatzi dituzu.

Literaturarekin asko gozatu dut betidanik. Beti idatzi izan dut, baina orain dela urte batzuk bi bihotzeko jasan nituen eta, nire ohiko jarduna laga behar izan nuen, idazten hasi nintzen. Liburuengatik jasozten dudana dirua egitasmo solidarioei eskaintzen diet (ELA gaixotasunari aurre egiteko, Elikagaien Bankuari...), eta honekin esan nahi dudana da ez dudala dirua irabazteko idazten, baizik eta sormenaren erronkari aurre egiteko. Lehenik, eleberrri historikoa idazteko erronka izan nuen eta idatzi nuen, eta gauza bera bidaia-eleberrri batekin eta genero poliziakoa duten beste birekin. 'El veneno de la serpiente' liburuaren kasuan, esan bezala, aspalditik nuen bertan lantzen den gaiari buruz idazteko asmoa. Barrena nahigabetzen dizun hori ateratzea bezala izan da eta oso ontorio ona izan du nigan. Izan ere, gaiaren inguruan asko hausnartzeko aukera eman dit eta gure gizartean adiskidetzeta handi batera iritsi behar gara pentsatzen dut.

Liburuak nolako erantzuna jaso du?

Euskadiko biolentzia politikoaren gaia agerian darabagu oraindik. Egia da belaunaldi gazteenek ez dutela gaia gure antzera bizi, ETak bere jarduna orain dela hainbat urte laga zuelako eta ez dutelako bere biolentziaren sasoia bizi. Adin bat dugunok, ostera, modu batean edo bestean sufritu egin dugu. Noski, ezker abertzaleko jendeak errepresio handia jasan izan du eta baita eleberrian ezkutatzeko ez den biolentzia gogorra ere. Estatuak gerra zikina egin zuen ETaren aurka. Errealitate horren inguruan hainbat pasarte kontatzen dira liburuan. Bestetik, Gipuzkoako enpresen indarraren zergatia ere azaltzen da bertan. Izan ere, industria-birmoldaketaren inguruan oso erabaki garrantzitsuak hartu ziren sasoi hartan eta CAF bezalako enpresak salbatu zituzten. Jose Antonio Ardantzaren kontseilariak plan bat jarri zuten marxan gure enpresak hondoratu ez zitezen, eta horri esker gure enpresa asko zutik daude eta Gipuzkoako



industriaren BPG-ren batzabestekoa Espainiakoaren bikoitza da. Horrelako istorioek nobelan azaltzen den gaia borobiltzen dute.

Nola geratu zara liburu idatzi ondoren?

Oso ondo. Adin batera heltzean gauzei amaiera ematen diezu eta politikan izan dudana inplikazioari amaiera eman nahi izan diot. Guztiz politizatuta egon den belaunaldikoa naiz. Frankismoa ezagutu genuen, Burgosek prozesua... Nire bizitzako lehen mitina PSOE 1976eko otsailean Astelena frontoian eskaini zuena izan zen. Franco hil eta hiru hilabetera. Trantsizioko lehen mitin politikoa izan zen, alderdi politikoak oraindik legez kanpokoak zirenean. Kuadrilla guztia egon ginen bertan. Demaseko zalaparta egon zen. Politika pasioz bizi genuen, baina orain beste adin bat daukat. 40 urtez eduki dut EAJren karneta eta orain dela 45 urte hasi nintzen bertan militatzen. Bizitza politiko horri amaiera eman nahi izan diot eta beste gauza batzuk egin. Liburu honetan landu dudana gaiak barruak jan dizkit eta, argitaratu ondoren, barruan nuenari irtenbidea eman diot. Hor daude nire iritziak eta ahanzkortasunari buruz pentsatzen dudana (ez bakarrik ETarekin gertatu zenaren inguruan, baita EAJren ahanzkortasunari buruzkoa ere).



etxe-apainketa gehigarria

2024ko maiatzak 17

JANTOKIA BERRASMATU

Egongela-jantokia etxearen bihotza da, esperientziak partekatzeko eta oroitzapenak sortzeko lekua. Hasteko, hitz egin dezagun koloreaz: tonu leunek, gris argiak, zeru-urdinak edo labandak esaterako, giro lasai eta atsegina sor dezakete. Bestalde, espazio bibragarriagoa eta energiaz betetakoa bilatzen baduzu, kolore hori-mostaza, gorri-marroia edo oliba-berdea apartekoak izan daitezke.

Koloreak ez ezik, testurak ere eginkizun erabakigarria du egongelaren atmosferan. Egur naturala bezalako materialak erabili ditzakezu berotasuna emateko, metalak ukitu industrial baterako, edo ehun aberatsak, hala nola tertziopeloak edo lihoa, sofistrazioa eta erosotasuna gehitzeko.

Altzariak jantokiko aretoaren arima dira. Zurezko mahai handi bat familia-bileren bihotza izan daiteke, eta diseinu modernoko aukiak edo landa giroko bankuak, berriz, ukitu bakarra izan dezakete.



Esperientzia eta erantzunkizuna

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Lanean zurekin...
...etorkizun hobeagoaz goza dezazun.

Tailerrak, fatxadak, igogailuak, teilatuak, bulegoak...

irazabal

943 120 108 www.irazabal.net eraikuntza • erretasun • ingurumena Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR

Eskailera dekoratiboa elementu bertikal gisa jartzea beste aukera bat izan daiteke; objektuak gordetzeko ez ezik, interes bisual bereizgarria ere ematen duena.

Bestalde, argiztapen egokia funtzionala izateaz gain, artelana ere bihur daiteke. Lanpara zintzilikario modernoak, arreta-zentro gisa funtzionatzen duten argimutil edo kandelabroak, edo efektu garaikide baterako ezkutuan dauden LED zerrendak ere. Argiak erabilera askokoa izan behar du: distiratsua otorduetarako eta leuna bilera intimoenetan giroa sortzeko.

Jantokiko aretoan, xehetasun bakoitzak du bere balioa. Apaindutako kuxinetatik hasi eta espazioa zehaztu eta mugatzen duten alfombretaraino, elementu bakoitzak bere nortasuna eta bizimodua islatu behar ditu. Ez ahaztu artelanak, foku-puntu zoragarriak izan daitezkeenak, edo natura- eta freskotasan-ukitu bat eransten dioten landareak.



**Erreforma integralak
Gremioen koordinaketa**

REONOR
REFORMAS Y OBRAS DEL NORTE

Barrena, 14 Tf. 943 254 254



VENTANAS ONA[®] LEIHOAK
Bidebarrieta, 28 Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

**AROTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**

LEIHOAK VENTANAS ONA[®]

ISPILUA APAINGARRIA ERE BADA

Ispiluak ez dira gure irudia islatzeko bakarrik, gure etxeko argia, estiloa eta sormena ere islatzen dituzte. Ez da espazio kontua bakarrik. Ispiluek gelen argitasuna handitu dezakete. Argi naturala eta artifiziala islatzean, edozein txoko ilun argiago eta erosoago ikusten da.

Beren funtzionaltasunetik haratago, ispiluak artelanak dira berez. Markoak minimalistak, barrokoak... Ispilu perfektua dago dekorazio-estilo bakoitzerako.

Leku egokia aukeratzea funtsezkoa da. Ispilu batek, leiho baten aurrean, bikoiztu egin dezake kanpoaldearen pertzepzioa; korridore estu batean, berriz, luzeagoa eta zabalagoa eman dezake. Zure espazioa azter dezakezu, ispiluek alde handia egin dezaketen zure etxeko lekurik onenak zein diren jakiteko.



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA

www.urrategiinteriorismo.com
Eibar Arroqueta 27 Arpoitia Arretue 9

Ispilu guztiek ez dute espazio guztietarako balio. Ispilu handi bat izugarria izan daiteke espazio txiki batean; baina, ondo jartzen bada, azalera nabarmen handitzen du. Bestalde, ispilu txiki batzuek interes bisuala eta sakontasuna gehitu ditzakete, ingurua gehiegi kargatu gabe.

Ispiluen markoak dekorazio estiloak bezain anitzak izan daitezke. Modernoetatik eta linealetatik hasi eta *vintage* xehetasunez apaindutako diseinuetaraino, marko egokiak ispilua eta inguratzen duen espazioa bera azpimarra ditzake. Garrantzitsua da, espazioa osatzeko ez ezik, zure egungo dekorazioa nabarmentzeko markoa aukeratzea.

Gainera, ondo jarritako ispilu bat gela bateko foku-puntu bihur daiteke. Tximiniaren gainean, jantokian edo sarreran, ispilu deigarri batek espazioa zehaztu eta arreta erakar dezake.



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA
 F. Calbetón, 4 - 3. solairua

Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.elbar@gmail.com

ETXE MINIMALISTA BATERAKO FUNTSEZKO PRINTZIOIAK

Etxeko objektu kopurua murrizteak, espazio fisikoa garbitzeaz gain, zure burua argitu eta zure bizitza errazten du. Aukeratu kalitate handiko altzari eta objektuak, gehiago irau ez ezik, zure espazioari edertasuna eta asmo bat emango diotenak. Diseinu minimalista on batek funtzionaltasuna eta denboraz kanpoko estetika ditu ardatz. Altzariak aukeratzean, bilatu pieza sinpleak baina funtzionalak. Altzariak lerro garbiak eta kolore neutrokoak izan behar dituzte, espazioan ikus-koherentziari eusteko. Kolore neutroak (zuria, grisa eta beixa) ezin hobeak dira etxe minimalista batentzat, zabaltasun, argi eta lasaitasun sentazioa sortzen baitute. Kolore horiek elementu apaingarrien konbinazioa ere errazten dute.

Kolorea ahalik eta apalena izan arren, interes bisuala eta berotasuna gehitu ditzakezu testuraren bidez. Zura, lihoa eta artilea bezalako material naturalek sakontasuna eta erosotasuna ematen diote espazioari.



Ikasi espazio irekiaren edertasunaz ohartzen, eta ez izan hura betetzeko tentazioa. Ongi aztertutako eta hustutako espazioa diseinuko objektua bezain zirrargarria izan daiteke.

Minimalismoari mesede handia egiten diote elementu naturalek. Landareek, adibidez, bizitza eta kolorea erants diezaiokete espazio bati, lasaitasun eta freskotasun sentazioari eutsiz.

Arane, 6 -EIBAR- 943 20 61 64 / 943 17 19 73

F. PASCUAL
AROTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

www.cocinaspascual.com

ALTZARIAK NEURRIRA
zure etxea, zure estiloa

ARMAIRU ENPOTRATUAK Zur mota guztietan
 Zure dekoraziora egokিতuta

SUKALDE ALTZARIAK Fabrikatzaileak gara
 30 urteko gorako esperientzia

Zubiaurre, 36-38
 ERMUA
 943 17 68 28

VIRGINIA PASCUAL



XARMA HANDIKO ATONDO TXIKIAK

Atondoek etxe osoko dekorazioarekin bat datozen diseinuak izan behar dituzte, multzo osoak unitate bat izan dezan. Pieza txikiak izaten dira, estuak eta funtzionalak izateko eta objektu txikiak uzteko pentsatuak, nahiz eta batzuetan ispiluak, esekitokiak eta artelanak ere izaten dituzten. Ausartena? Altzariei erabilera berria ematea, hala nola, kutxa zahar bat, sofa txikiak, aulkiak, otomanak edo bankuak.



PAPERAK, BANAN-BANAN

Paper margotuak intimitate sentsazioa sortzen du eta giro atsegina sortzen du. Baina, espazioa oso zabala ez bada, erabat papereztatutako gela batek saturatua dirudien arriskua du. Dosifikatu papera eta mugatu horma bakar batera; ustekabeko efektua lortuko duzu eta paretaren gainean sakontasun-sentsazioa emango duzu.



**FATXADA ETA
TEILATUEN
BIRGAIKUNTZA**

**BARNE
ERREFORMAK**

**GREMIOEN
KOORDINAZIOA**






eraieder
since 2007

ERAIEDER, S.L.
info@eraieder.es

www.eraieder.es



Matsaria, 10
943 200 453



XEHETASUN TXIKIAK

Konketaren profilaren gainean lau baldosa hidrauliko jarrita, nortasuna erantsi zaio komun txiki honi. Aldaketa txiki bat, komuneko looka ia lanik egin gabe aldatzen duena.

Bainugela honetan, Londresko viktoriar estiloko etxe batean, tonu berdeko landare eta eskuoihalak gehitu ziren, baldosa apaingarrien koloreekin jarraitzeko.

Kolore zuriko akabera xumea apostu segurua da. Azulejuek, pinturek eta komunek, paletako gama argiengan, komuneko metroak handituko dituzte, txikia izanda ere. Berotasuna emateko, aukeratu zura imitatzen duen zeramikazko edo binilozko lurzorua.



AMETSETAKO TXOKO BERDEAK

Soropil edo belar artifiziala oso apaingarria da, balkoiaren edo terrazaren itxura aldatzeko eta barne- eta kanpo-eremuei jarraipena emateko. Eragin hori oso ondo geratuko da udaberriaren eta udan itxituraren eremua irekitzen duzunean.

Gainera, soropil artifiziala oso aldakorra da, eta aukera emango dizu zure kanpoko espazioa pertsonalizatzeko, ukitu desberdina emateko, ametsetako txokoak sortzeko... Azken batean, zure oasi berdea diseinatzeko, zure terraza edo balkoiari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.



JMR

**ISOLAMENDUAK
ERREFORMAK
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA
OBRAK ETA PROIEKTUAK**

943 57 41 03 Txonta, 27 - behea www.jmr.eus



Koloreen eztanda. EKHI BELAR

SD Eibar-eko PC taldeak Ligako txapeldun titulua defendatuko du

Aurreko denboraldian irabazitako titulua defendatuko du asteburu honetan Madrilén garuneko paralisia eta hartutako kalte zerebrala dutenentzako 7. Futbol Ligan parte hartzen duen SD Eibar Fundazioko taldeak. Carabanchelén jokatuko dira finalerdiak eta finala eta, SD Eibar-ekin batera, AMDDA Málaga, Hércules Paralímpico eta Fundación Segunda Parte Elecnor



izango dira lehian. Azken hori izan-go da eibartarren aurkaria zapatu eguerdian, 12:00etan. Irabazleek ordu berean jokatuko dute finala domekan.

Bestalde, SD Eibarko lehen taldeei dagokienez, aste honetan Anaitz Arbilla (Larraitza) eta Ane Campos (Getaria) talde bietako kapitainek beste urtebeterako luzatu dituzte euren kontratuak.

Urpekaritza-bataioen erronkaren erdia arrakastatsua izan zen kiroldegian

Aurreko asteburuan burutu zuten Klub Deportiboko urpeko ekin-tzetako batzordekoek “klubaren mendeurrena dela-eta, 100 urpekaritza-bataio egiteko erronkaren lehen erdia”. Zapatuan 51 bataio egin zituzten Ipuruako kiroldegian: “Lan handia eskatu bazuen

ere, pozik gaude lortutako emaitzarekin, oso ondo joan zelako guztia”. Orain erronkaren bigarren zatia geratzen zaie, maiatzaren 11koak jarraipena izango duelako ekainaren 15ean, kasu horretan itsasoan, Getarian egingo dituzten beste 50 bataioekin.



Urbat B-k partidu erabakigarria du gaur Orbean

Mailari eusteko partidu erabakigarrian, Euskal Herriko 1. Mailan jokatzen duen Urbat Urkotronik-eko bigarren taldeak garaipen bikaina eskuratu zuen Lauroren igerilekuan. Hasieran asko sufridu behar izan bazuten ere, hirugarren zatia- ren hasieran markagailuak Lauroren aldeko 6-3koa erakusten baitzuen, ondorengo 0-5eko partzialak markagailuak 6-8 eibartarren aldekoa izatea ekarri zuen. Gaur bertan Orbean, gaueko 21:30ean hasita, mailari behinbetiko eustea ekarri dezakeen bien arteko norgehiagoka izango da; denboraldian zehar taldeak zelan hobetu duen ikusteak itxaropenez betetzen ditu zaleak.

Garikoitz Rodriguez garaile Soraluzen

Aurreko zapatuan Soraluzeko San Andres bolatokian jokatutako 53. Gipuzkoako Hiru-Txirlo bola joko txapelketaren zortzigarren jaurtialdian Asola Berriko bolaria sailkatu zen lehenengo postuan. Berarekin berdindu zuen, bosna txirlorekin,

independente gisa lehiatzen duen Ediel Reyesek. Euren atzetik lau-kote bat geratu zen, lau txirlorekin. Txapelketako hurrengo tiraldia, bederatzigarrena, Elgoibarko San Pedro auzoko bolatokiak hartuko du zapatuan, 17:00etatik aurrera.





Herriko lau pilotarik aurrera egin dute kaiola barruan

Gipuzkoako 4 t'erdiko txapelketa-ko lehen fasea amaituta, aurrera egin duten Klub Deportiboko hiru pilotarik final-zortzirenak jokatu dituzte, eta laugarrena, jubencil mailako Ibarra, final-laurdentara pasatu da zuzenean. Varona eta Azpilikueta kadeteak bakoitza bere multzoko lehena izan da, eta Conde seniorrak bigarren amaitu du berean.

Helduak Anbotora eta umeak Irimora, mendizaleen azken irteerak

Aurreko asteburuan egindako irteeretan, Anbotora jo zuen helduen taldean 38 mendizale izan ziren, Besaidetik irten eta Udalan amaitu zen txangoan. Zeru garbia, eguzkia eta beroa lagun izan zuten, haizearekin batera, paisaiarekin gozatzeko egunean, Anboto tontor enblematikoa zain zutela. Umeen ikasturteko zortzigarren

Sei etapetako EIBAR100 trail erronka egingo dute gaur gauetik bihar arte

Klub Deportiboaren mendeurrena ospatzeko antolatutako trail erronka barixakuko 22:00etan hasiko da eta, guztira 100 kilometroko ibilbidea egin ondoren, zapatuko 19:00etan amaituko da. Erronka sei etapetan banatuta dago, bakoitza 15 eta 18 kilometro artekoa, eta horietan Eibar inguruko mendi garrantzitsuenak (Kalamua, Urko, Egoarbitza, Galdaramiño...) igaroko dituzte 21 ordutan.

Etapak guztiak Deporren egoitzatik irtingo dira eta bertan amaituko. Ekintza ez lehiakorra denez, partaide guztiak ibilbidea elkarrekin egingo dute, batzaz beste 5 km/orduko abiaduran. Ibilbidea markatuta ez dagoenez, antolatzaileek gidatuko dute. Anoagunea klubeko egoitzan izango dute parte hartuko duten 100 bat lagunek. Etapak honakoak dira:

Lehenengoa (Depor-Galdaramiño-Topinburu-Depor). Irten: 22:00 / Iritsi: 01:15 / Luzera: 15 km / Igoe-

ra: 714 m / Iraupena: 3 ordu, 15 minutu.

Bigarrena (Depor-Egoarbitza-Depor). Irten: 01:15 / Iritsi: 05:00 / Luzera: 18 km / Igoera: 696 m / Iraupena: 3 ordu, 45 minutu.

Hirugarrena (Depor-Aizketa-Kalamua-Depor). Irten: 05:00 / Iritsi: 08:30 / Luzera: 16 km / Igoera: 785 m / Iraupena: 3 ordu, 30 minutu.

Laugarrena (Depor-Illordo-Azkonabitza-Depor). Irten: 08:30 / Iritsi: 12:15 / Luzera: 18 km / Igoera: 716 m / Iraupena: 3 ordu, 45 minutu.

Bosgarrena (Depor-Urko-Depor). Irten: 12:15 / Iritsi: 15:45 / Luzera: 15 km / Igoera: 934 m / Iraupena: 3 ordu, 15 minutu.

Seigarrena (Depor-Akondia-Garagoitxi-Depor). Irten: 15:45 / Iritsi: 19:15 / Luzera: 18 km / Igoera: 785 m / Iraupena: 3 ordu, 30 minutu.

Informazio gehiago: <https://www.deporeibar.com/mendia/eu/eibar100-trail/>



irteeran, bestalde, Bergarako Elo-suatik abiatu eta, Meaka eta Irimo tontorrak gaintuz, Zumarragako Santa Barbara auzoan amaitu zuten. 34 haur eta hainbat guraso-laguntzailek osatu zuten taldeak "behelaino itxiaren oztopoa" izan zuen, "baina berde-berde zegoen basoari horrek xarma misteriotsu bezain magikoa" eman zion.

Ekaina hastearrekin batera, beste irteera bana izango dituzte batzuek zein besteek. Helduek Artesiaga-Saioa-Xuriain-Lantz ibilbidea egingo dute. Umeek, bestalde, ikasturteko azkena (Eibar-Kalamua-Arrate). Gainera, ikasturtean bost irteera edo gehiago egin dituzten haurrek domina jasoko dute Arraten egingo den Finalista Egunean.

Urki taldeek uzta bikaina dihardute jasotzen

Urki futbol klubeko ordezkariak ahaztu ezinezko denboraldia dihardute egiten. Horrela, Erregionaleko Gorengo Mailan jokatzen duen Urki JMR lehenengo taldeak hirugarren postuan amaituko du, Mondragon eta Aloña Mendiren atzetik, aste-buru honetan amaituko den liga. Harrobiko taldeen artean, bestalde, jubenetako Ohorezko Mailako Urki Alkidebak, Euskaldunari 2-3 irabazita, jardunaldi bakarra-



Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako tiketak hilaren 22rako erosi daitezke.

ren faltan multzoko lider postuan amaitu du eta igoera lortzeko partidua jokatuko du Real Unionen kontra. Kadeteen 1. Mailako Urki Hegan Rent-ek, bestalde, Urnieta 1-0 garaitu eta ligako txapela janz-

teaz aparte, Ohorezko Mailara igo da. Azken talde horretako jokalariek titulu hori eskaini nahi izan zioten orain dela hilabete batzuk hildako Unax Garcia taldekideari, horretarako kamiseta berezia jantzita.



Eibar Saskibaloia denboraldi berriari begira

Gure herriko saskibaloia klubak basket jaiegunetako ekitaldiak dihardu prestatzen: kadete mailarainokoen jaia maiatzaren 25ean egingo dute, eta junior eta senior mailakoena ekainaren 8an. Eta, urterokoari jarraituz, ekainaren azken egunetan eta uztailaren lehenengo astean ate irekien jardunaldiak egingo dituzte kiroldegian. Eta, besoak gurutzatuta egoten diren horietakoak ez direnez, “16 urtetik gorakoentzat entrenatzaile izateko hastapen ikastaroak” prestatzen dabilta.

Dagoeneko matrikula egiteko izena emateko epea zabaldu dute maila guztietan, ekainaren 15ean amaituko dena. “Garrantzitsua da epe horiek errespetatzea taldeak apuntatzeko Diputazioan eta Federazioan”. Egun hauetan bilerak egiten hasiko dira taldeetako gurasoekin, denboraldia zelan joan den jakin eta hurrengo prestatzeko asmoz. Informazio gehiagorako, interesatuek saskieibar@gmail.com helbidera jo dezakete, edo 617349215 zenbakira deitu.

Eibar Igerixanek klubaren eguna ospatu zuen aurreko domekan

Igerilariek, euren familakoek eta klubeko kirolari-ohiek hartu zuten parte domeka horretako ekitaldietan. Goizeko 10:00etan zapiak banatu zituzten parte-hartzaileen artean eta, ondoren egindako mendi-ibilera, luntxa eta jokoei amaiera eman zieten arratsaldeko 14:00etan Untzagako harmailetan elkarrekin ateratako talde-argazkiarekin.



Hiri plurala eratzea helburu

BIDEOA



Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailak Bizikidetza eta Aniztasunaren IV. Plana osatu du eta hilaren 20an aurkeztuko du herritarren aurrean. Bertan 45 ekintza jasotzen dira datozen lau urteetarako (2024-2028), eta kultura-aniztasunaren ikuspegia zeharkakotasunez txertatzen du Udalaren jardueran. Horrela, gure herriaren pluraltasunari eta dibertsitateari erantzun egokia eman nahi zaio.

Bederatzi urte inguru Udaleko zinegotzi izan ondoren, Gorka Errastik berriz ere heldu dio immigrazio teknikari lanpostuari. “Oso pozik hartu dut itzulera, gogotsu”, aitortu digunez, “ia ahaztuta nuen hainbeste gustatzen zitzaidala nire lana. Lehen hilabeteak berrikasteko aprobetxatu ditut, baina martxa hartu dut, bizikletan ibiltzea bezala, ez delako ahazten”.

Hainbat urteren ondoren, ostera, Eibarko gizartea aldatu egin da eta Errastik atzeman du. “Horren ondorioz, lan karga handitu egin da”, gehitzen du. Baina urte hauek zer gauza aldatu dira Eibarren? Honakoa erantzun digu immigrazio teknikariak: “Eibarko argazkia aldatu egin da. Orain dela bederatzi urte higiezinaren krisiaren azken astinduak nabari genituen eta hona iristen ziren atzerritarrak ez ziren hainbeste herrialdeetatik etortzen, baizik eta Espainiako estatuan sakabanatuta zeudenak ziren. Gaur



egun, ostera, euren herrialdeetatik etortzen dira, bertako egoera askoz ere okerragoa delako eta bizitza hobeto baten bila datoz. Horrela, bikoiztu egin da aniztasuna, baita immigrazio-tasa ere, eta egoera nahiko gogorrek eta zaurgarriak ikusten dira”.

Gaur egun, 89 herrialdeetako pertsonak bizi dira gure herrian, eta atzerrian jaiotako eibartarrak biztanleriaren %14,4 dira (2012an %7,6 ziren). Beraz, migrazioan egon den aldaketa horrek herrian eragina izan du, baina nolakoa? “Beti esan izan dut, baina aniztasuna gero eta handiagoa izaten den neurrian, erronka nagusia koexistentziazatik elkarbizitzara pasatzea da”, azpimarratu du Errastik. Izan ere, bere esanetan, “Eibar horrelakoa da orain eta horrela jarraituko du izaten, gainontzeko herriek bezala. Mundua globalizatua da, koloretua, eta gero eta gehiago izango da. Gure bilakaera demografikoa ikusten badugu, etorkizuna horrelakoa izango da eta hori kudeatu beharko dugu denok batera elkarbizitzeko”.

Azken urte hauetan munduko beste toki batzuetan ikusten ditugun gerrek, goseteek eta bestelako egoerek zerikusia dute etorkizunean migrazio uholdeak egongo direla aurreikusteko orduan. “Mundua pil-pilean dago. Jendearekin aurrez-aurreko hitzorduak izaten ditut eta ikusten da migratzeko arrazoi mordoak dagoela. Askok segurtasuna aipatzen dute, euren herrialdeak ez direla bizitzeko seguruak; beste batzuek egoera ekonomikoarengatik migratzen dute”, diosku Errastik, baina beste gako



Bederatzi urte inguru zinegotzi izan ondoren, immigrazio teknikari postura itzuli da Gorka Errasti. EKHI BELAR

bat gehiago ematen digu: “Geroz eta gehiago egiten da berba ingurumen-migranteetaz”.

Planaren gakoak

Eibar aspalditik izan da kanpotik etorritako jendea hartzen duen herria. “Beti izan gara harrera herria”, Errastiren berbetan. “Biztanleriaren %30a EAEtik kanpo jaio da”, gehitzen du. Orain dela urte batzuk Espainiatik etorritako jendea jaso genuen Eibarren eta, teknikariaren berbetan, “sasoian

sasoikora ohitzen joan gara”, baina aurrean dugun egoerari aurre egiteko gauzak landu behar direla uste du. “Elkarbizitza ez da magia bidez sortzen. Bide horretan zailtasunak egon daitezke eta hori gutzia errazteko gaude hemen”, diosku.

Hain zuzen ere, horretarako landu du Udalak Eibarko Bizikidetzeta eta Aniztasunaren IV. Plana. “Herrira etortzen den jendeari harrera eman behar zaio eta hori da planaren garrantzia. Gizarteratzea



Ongi Etorri Berbetan programak berebiziko garrantzia du Berdintasun eta Aniztasun Planean...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

landu behar da, baina ez atzerriko jendearen gizarteratzea bakarrik, baizik eta gizarte guztiarena. Denok egin behar dugu ahalegina gizarteratzean laguntzeko. Kultur-aniztasunaren inguruan eta sentsibilizazioarekin zerikusia duten ekintzak egin behar dira, eta elkar ezagutza sustatu behar da. Eta, bestetik, plan honetan jasotzen den jauzi kualitatiboa transbertsalitatearen eskutik dator. Kultur aniztasuna zeharkako gauza bat da. Ez da immigrazio teknikariak edo Gizarte Zerbitzuak bakarrik egin behar duten zerbaitekin, planak Udaleko sail guztiek kultur aniztasunaren ikuspegia txertatzeko ordua dela jasotzen duelako”, azaldu digu Errastik.

Azken puntu hori zehazte aldera, adibide bat jarri digu: “Urtero antolatu behar dugu Kulturartekotasun Jaia? Edo ordua da, adibidez, Sanjuanetan kulturartekotasun ekintzak txertatzeko? Txip hori planean sartzen saiatu gara”.

>>> "Urtero antolatu behar dugu Kulturartekotasun Jaia? Edo Sanjuanetan kulturartekotasun ekintzak txertatzeko ordua da?"

Guztiaren atzean, pertsonak

Plana gauzatzeaz gain, bestelako zerbitzuak eskaintzen dira Gizarte-ekintzako immigrazio sailetik. Hala nola, arreta zuzena eskaintzea (“atzerritar jatorriko eibartarrek hitzorduak edukitzen dituzte astean hiru aldiz”), lan-komunitarioa egitea (“integrazioa lantzeko ekintzak, gainontzeko eragileekin elkarlana... Adibidez, lan munduan, formakuntza zentroekin eta ikastetxeekin, hor lan asko dagoelako egiteko”), sentsibilizazio ekintzak

(hilaren 23an zurrumurruen aurkako solasaldia egongo da) eta nazioarteko lankidetzak.

Arreta zuzenari garrantzi handia ematen dio Errastik. “Azken neurrian, plan eta asmo guztien atzean pertsonak daude, eta askotan hori ahaztu egiten zaigu”, Errastiren ustez. “Jende batek oso modu arrotzean egiten du berba etorkinen inguruan, agian ez dutelako kanpotik etorri den eibartarrek ezagutzen, eta egunerokotasunean ikusten dut. Denok gara pertsonak eta bakoitzak bere zailtasunak, ilusioak eta itxaropenak ditu, eta hori guztia zaindu egin behar da”, gehitzen du.

Zuzeneko arreta horretan, “kontratzen naiz eurentzat arrotza den herri batera etortzen direla, herriaren inguruan oso informazio gutxi dutela, eta askotan lehen harrera hori zuzena izatea eta informazioa ahalik eta modurik errazenean eta onenean ematea oso garrantzitsua da, galduta ez ibiltzeko”, teknika-riaren iritziz.

NIEVES ARRESE • Zuzenbidean doktorea eta atzerritartasunean aditua

“Estremismoak defendatzen dituen politikak zabaltzen ari dira”

Zurumurrueen Aurkako Sareak ‘Europa, migrazioak eta estremismoa’ izeneko solasaldia prestatu du hilaren 23rako, 18:30ean, Portalean. Bertan, Karlos A. Castilla Juarez Pompeu Fabra unibertsitateko Giza Eskubideetako irakasleak eta Nieves Arrese zuzenbidean doktoreak egingo dute berba, Asmae Ourdi soziologo eibartarrak moderatzaile lanak egingo dituelarik.

Elkarrizketa
osoa eta
BIDEOA



Zurumurrueen aurkako solasaldian hartuko du parte Arresek.

Zertaz jardungo duzue solasaldian?

Espainiako, Europako edo Amerikako Estatu Batuetako muturreko alderdien diskurtsoetako bat migrazioaren aurkakoa da. Gainera, diskurtso horiek gezurretan edo egia ez diren gauzetan oinarritzen dira eta mezu horiek gizartearen zati batean isla izan dute. Azken urteotan eskuin muturreko alderdiek gora egin dutela sumatu da. Euren ideologiaren ardatzetako bat migrazioaren aurkako jarrera da eta hori beste alderdietara hedatzen ari dela ikusten da. Hau da, estremismoak gora egin duela egia bada ere, estremismo horrek defendatzen dituen hainbat politika beste alderdi politiko batzuetara hedatzen ari da, hor boto multzo handia dagoela ikusten dutelako. Adibide garrantzitsu bat European migrazioari eta asiloari buruz onartu berri den akordioa da. Alderdi gehienek, eskuindarrek eta ezkertiarrek, horren alde egin dute.

Zer dio akordio horrek?

Ez dut osorik aztertzeko denbora izan, baina bai puntu garrantzitsuenak. Estatuak euren babeserako honako argudioa erabiltzen dute: etorkinen kontu hori kanporatzea. Hau da, jatorrizko herrialdeei nolabaiteko karameloak ematea etorkinak lurralde horietatik atera ez daitezten. ‘Europa gotorlekua’ deitzen diote horri. Arzoa ez dadila Europara heldu, jatorrian gelditu dadila. Bestetik, ‘Estatu segurua’ kontzeptua oso sartuta dago asiloaren eremuan. Pertsona bat ezin dezakezu atzera bidali bere bizitza eta bere osasun fisikoa arriskuan baldin badago, eta zentzu horretan ‘estatu segurua’ eta ‘ez segurua’ berezitu lirakeke, baina ez dago zerrenda bat, eta ez da komeni egotea, baina ikusten ari gara Tunez edo Maroko bezalako herrialdeak Europarentzat ‘estatu segurua’ direla, eta badakigu herrialde horietan ez direla giza eskubideak errespetatzen.

Kontua estatuen interesen arabera da orduan?

Marokok arrantzan abantailak lortzearren Espainia presionatu nahi duenean, adibidez, ikusten badu Espainiak ez dituela gauzak erraz jartzen, muga ireki egiten du eta bat-batean milaka lagun heltzen dira hegoaldeko mugar. Beraz, estatu horiek baliabide oso garrantzitsua dute Europa presionatzeko.

Altxorraren Bila arrakastatsua antolatu zuen ...eta kitto!-k

Eguraldia lagun 80tik gora lagunek hartu zuten parte barixakuan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Altxorraren Bila ekintzan. Hainbat pista asmatu eta proba gainditu ostean, helmugara iritsi ziren talde guzti-guztiek jaso zuten euren altxorra. Merendolaz gozatzeaz gain, diploma eta domina bana ere jaso zituzten parte-hartzaile guztiek.







Kontzertua eta Hitza Jolas saio bikoitza Gaztetxean

Eibarko Gaztetxeak kontzertua antolatu du biharko, The RiffTruckers eta Kohatu taldeekin. Ateak 21:30ean zabalduko dituzte eta sarrerak 3 euro balio du. Eta ekainaren 1ean, berriz, hitzordu bikoitza hartuko du Gaztetxeak, Hankamotxak bertso eskolarekin elkarlanean antolatu duten *Hitza Jolas* izeneko ekitaldian. Manex Astigarraga eta Esti Curielen bakarriketekin hasiko dira, 19:30ean, eta ondoren, 21:00etan, bertso afaria egingo da, Aroa Arrizubieta, Igor Galartza, Maite Sarasola eta Aitor Tatiegi bertsolariekin. Bakarriketetarako sarrerak egunean bertan egongo dira eskuragarri Gaztetxean (5 euro) eta bertso afarirako sarrerak (egitarau osorako balio dute), berriz, Guridi eta Zai-Zoi tabernetan aurretik erosteko aukera dago (15 euro, aukera beganoa egongo da).



Paul Gaugin margolariari buruzko hitzaldia

Eibarko Artisten Elkartearen eskutik, eguaztenez Paul Gaugin artistari buruzko hitzaldia emango du Ricardo Aldama Arte Ederretako irakasleak. *La busqueda del paraíso* izenburuko saioa 18:30ean hasiko da, Portalean, eta sarrera librea izango da.



Banatu dira Ipurterre literatura lehiaketako sariak

Eguazten goizean banatu zituzten aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak, Coliseo antzokian. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean... eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatzen duen lehiaketak XXX. edizioa bete du aurten. Gure herriko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte, eta edizio honetako irabazleak Sofia Lujan (La Salle), Udai Mallagaray (San Andres) eta Helene Jauregi (J.A. Mogel) izan dira Lehen Hezkuntzan, eta Eneko Meababasterretxea (Eibar BHI) eta Alaitz Herrera (La Salle) DBH-n. Txoborro magoa aritu zen sari-banaketa ekitaldia girotzen, eta bertara joandakoak aho bete hortz laga zituen bere magia-saioak.



Natalia Lafourcade musikagileari buruzko saioa

Pagatxa emakume taldeak Berdintasun Zerbitzua-Andretxearekin elkarlanean antolatzen duen *Emakumeen Istorioak* bideo-forum zikloaren hurrengo saioa astelehenean izango da, 18:00etan Andretxean. Natalia Lafourcade mexikar abeslari eta musika ekoizleari buruz arituko dira berbetan, beti bezala Patricia Perex Cotoren gidaritzapean.



“Museoko ertz zorrotzak” erakusketa berria zabalik

Bihar (maiatzak 18) Museoen Eguna dela ospatzeko, domekara arte sarrera doan izango da Eibarko Armagintzaren Museoan eta, gainera, bihar arratsaldean doako bisita gidatua egingo dute, erakusketa iraunkorra ezagutzeko. Horrekin batera, atzo bertan inauguratu zuten *Museoko ertz zorrotzak* izenburuko erakusketa. Urriaren 20ra arte bisitatu daitekeen erakusketa horretarako arma zuri batzuk atera dituzte museoaren biltegietatik, aldi baterako erakusteko. Horiekin batera, Eibarko zigilua estanpatuta duten beste pieza batzuk ekarri dituzte Arabako Armagintza Museotik eta Donostiako San Telmo museotik, erakusketa honetan ikusgai ipintzeko.



Asier Errasti film laburren lehiaketaren edizio berria

Uztailaren 5era arte egongo da zabalik XXV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdian izena emateko epea. Filmak jaso, ikusi eta aukeraketa egin ondoren, Coliseo antzokian izango da jaialdia, azaroaren 4tik 9ra. Lehiaketak bi atal ditu (fikzioa eta animazioa) eta izena emateko zein informazio gehiago izateko www.eibar.eus webgunera jo daiteke.



Usartzako txistularien udaberriko lehen kontzertua

Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du domekan, 12:45ean Untzagako arkupeetan. Udaberriko lehen kontzertua izango da: “Izan ere, apirilaren 7an egitekoa zena bertan behera laga behar izan genuen, egun eta leku berean txirrindularien lasterketa antolatuta zegoelako. Hori dela eta, Ipurua inguruan ibili ginen kalejiran. Asteburu honetan joko ditugun piezen artean, doinu herrikoiak eta dantza doinuak daude, baita 1928. urteko Bilboko txistulari banden lehiaketako derrigorrezko obra ere”. Hauek dira joko dituztenak: *Mari Glori* (biribilketa, M. Azurmendi), *Minueto* (B. Laskurain), *Alborada en cuatro tiempos* (J. Guridi), *Guda dantza* (Arm. J. de Iturrioz), *Arizpeko dantza* (Arm. A. Yurrita), *Mai-Ganeko* (Lorenzo Ondarra) eta *Ikaskiña Mendian* (Jose A. Erausquin).

Hasi da Armeriaren campus teknologikorako izen-ematea

Armeria Eskolak kanpus teknologikoa antolatu du uztailareko, 11-15 urte bitarteko gazteentzat. Uztailaren 1etik 5era izango da, 10:00etatik 14:00etara, eta parte-hartzea doanekoa da. Microbit programazioa, elektronika, 3D inpresioa eta talde-lana landuko dituzte, besteak beste. Izen-ematea zabalik dago eta horretarako azken eguna ekainaren 17a izango da.

Kaxa-koen dantza ikuskizunak



Datorren astean egingo dituzte ikasturte amaierako ikuskizunak Kaxa dantza eskolakoei. Bi egunetan, eguenean eta barixakuan arituko dira, 19:30ean Coliseon. Sarrerak 3 euro balio du.



10

**DESBERDINTASUN
DAUDE BI IRUDI
HAUEN ARTEAN**



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 8 | 2 | | |
| | | | 9 | 4 | | 7 | |
| | 6 | 2 | 7 | | 9 | | 3 |
| 9 | 8 | | | | | 6 | |
| | | 4 | | | 3 | | |
| | 3 | | | | | 2 | 8 |
| 2 | | 3 | | | 7 | 6 | 9 |
| | 5 | | | 6 | 9 | | |
| | | 9 | 5 | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | S | R | P | E | R | C | I | O |
| R | P | Z | A | R | E | L | I | N |
| S | S | B | Z | I | L | E | V | Z |
| R | E | J | S | O | V | A | C | I |
| K | S | C | O | D | E | N | O | |
| S | S | N | I | L | O | S | E | R |
| R | O | S | I | O | C | O | P | |
| K | I | Z | E | C | H | R | E | |
| K | I | Z | E | C | H | R | E | |

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | S | R | P | E | R | C | I | O |
| R | P | Z | A | R | E | L | I | N |
| S | S | B | Z | I | L | E | V | Z |
| R | E | J | S | O | V | A | C | I |
| K | S | C | O | D | E | N | O | |
| S | S | N | I | L | O | S | E | R |
| R | O | S | I | O | C | O | P | |
| K | I | Z | E | C | H | R | E | |
| K | I | Z | E | C | H | R | E | |

soluzioa

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | | 6 | | 8 | |
| 1 | 8 | | | 2 | 3 | | |
| | | | | 5 | | | 4 |
| 8 | 7 | | | 5 | 2 | | |
| | | | | | | | |
| | | 3 | 6 | | | 7 | 1 |
| 4 | | | | 6 | | | |
| | | 8 | 7 | | | 6 | 2 |
| 3 | | 8 | | | 9 | | |

Maiatzak 17 / 23

BARIXAKUA 17

EIBAR IBILIXAN

10:00 Jarduera fisikoa taldean egiteko jarduera. Doan. Anbulatorio parean.

OPERA

19:30 "Rigoletto" (G. Verdi). Madrilgo Errege Antzokian grabatutako operaren proiektzioa. Coliseo.



EIBAR 100 TRAIL

22:00 100 kilometroko ibilbidea osatzea, Eibar inguruko mendi garrantzitsuenak 21 orduan igota. Kalamua Korrikalari Taldearen erronka, Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrenarengatik. Klub Deportibo parean.

ZAPATUA 18

AGURRA

11:00 La Salle-Azitaingo 2. Batxilergoko ikasleen ospakizuna, ekitaldi akademikoa eta luntxa. Azitaingo parrokia.



ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10:00/20:00 "Anatomia de una foto", Tino Soriano argazkilariarekin. Portalea.

AZOKA

11:00/20:00 Bigarren eskuko II. Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

DOMEKA 19

AZOKA

11:00/15:00 Bigarren eskuko II. Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

MUSIKA

12:45 Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzaga.



ASTELEHENA 20

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen Istorioak: Natalia Lafourcade. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Doan. Andretxea.



EGUAZTENA 22

HITZALDIA

18:30 "La busqueda del paraíso", Paul Gauguin artistari buruzko hitzaldia, Ricardo Aldama irakaslearen eskutik. Doan. Portalea.



DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua. **20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (B. Sarasketa).

EGUENA 23

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.



SOLASALDIA

18:30 "Europa, migrazioak eta estremismoa". Parte-hartzaileak: Karlos A. Castilla Juarez, (Pompeu Fabra Unibertsitateko Giza Eskubideetako irakaslea) eta Nieves Arrese (EHUKo Administrazio Zuzenbideko kidea eta atzerriartasunean aditua). Dinamizatzailea: Asmae Ourdi soziologo eta enplegu teknikaria. Portalea (areto nagusia).

DANTZA

19:30 Kaxa Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.



ERAKUSKETAK

Maiatzaren 26ra arte:

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

- **IÑAKI MARKAIDA:**

"Momentuaren aurretik eta ondotik"

DIEGO PEDRA:

"Distopia"

KATY GOMEZ:

"Ellas, Elles, They..."

ADOLFO OLMEDO:

"Costa Agata"

(Portalea).

- **TXEMA ARTETXE:**

"Un lugar de leyenda"

(Topaleku).

- **Gipuzkoako Nazioarteko**

51. SARIA

(Untzaga Gizarte Etzea).

- **ARGIZAIOLA Saria**

(Klub Deportiboa).

- **Eibarko Klub Deportiboa**

KOLEKTIBOA

(Portalea taberna).

Ekainaren 14ra arte:

- **"HILEKOA(K)" Ainhoa**

Aldazabal Gallastegi-

Skolastikaren erakusketa

(Andretxea).

Urriaren 20ra arte:

- **"MUSEOKO ERTZ**

ZORROTZAK"


(Armagintzaren Museoa).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **18an:** 19:45, 22:30
- **19an:** 20:00
- **20an:** 19:30

“Nina”
DRAMA



2024/Espainia/105'
Zuzendaria: Andrea Jaurrieta
Aktoreak: Patricia Lopez Arnaiz,
Dario Grandinetti, Aina Picarolo
Mendekua / Sexu-abusuak

2 ARETOA

- **18an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 19:30

“La Casa”
DRAMA



2024/Espainia/83'
Zuzendaria: Alex Montoya
Aktoreak: David Verdaguer,
Oscar de la Fuente, Luis Callejo
Komikia / Familiaren inguruan

ANTZOKIA

- **18an:** 16:30 (1), 19:30, 22:30
- **19an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **20an:** 19:30

“El reino del planeta...”
ABENTURAK



2024/AEB/145'
Zuzendaria: Wes Ball
Aktoreak: Owen Teague,
Freya Allan, Peter Macon
Zientzia-fikzioa / Tximinoak

ANTZOKIA

- **18an:** 17:00
- **19an:** 17:00

“Garfield. La película”
ANIMAZIOA



2024/AEB/101'
Zuzendaria: Mark Dindal
Katuak / Lapurretak / Komikia

Arrate Urzuriaga Bollar

S. URTEURRENA
2019/05/14

“Beti izango zaitugu gogoan”

- ETXEKOAK -



FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Oteola, 27
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Diasoko Ikeriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeispina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MALEN**, etxeko txikixak 4 urte bete dittu-eta. Musu haundi bat etxekuen partez. Maite zaittugu!!



Zorionak, **MARKEL**, domekan 4 urte beteko dozuz-eta! Famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **JULEN!!** Gaur 7 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun! Etxekuen partez.



Zorionak, **MIKEL**, gaur 7 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **HELENE**, printzesa, bixar 5 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MAIALEN**, martitzenian 4 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **JANIRE**, domekan 14 urte egingo dozuzelako. Zutaz hain harro gagozen gurasuen partez.



Zorionak, **MARA**, martitzenian 11 urte bete zenduaz-en-eta. Segi holakua izaten. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANNE** Lasuen, etzi 7 urte egingo dozuz-eta!!!!!! Zein bizkor heldu zaren. Aitatxo, Amatxo eta Markelen partez.



Zorionak, **EDER!** Atzo 7 urte egin zenduaz-en-eta, txapeldun! Asko maite zaittugu. Ireni, aita eta ama.



Zorionak, **ANI!!!** Martitzenian 7 urte bete zenduaz-en-eta, neska haundi! Patxo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **AITOR!** Martitzenian 6 urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat famelixa danon partez. Disfratau, txapeldun!



Zorionak, **MARA!** Astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau zure egunian!!! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!!!



Zorionak, **IRATITxo**, etxeko txikixak 10 urte egin dittu-eta gure biziak betetzen. Musu haundi bat **NAIA** eta gurasuen partez.



Zorionak, **ANNE**txu, domekan 7 urte egingo dozuz-eta! Musu potolo bat, printzesa, **MARKEL**, **NAIA** eta **IRATI**ren partez!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
 - Eibarko erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (denak kanpora), balkoia eta 2 komun. Eguzkitsua eta oso egoera onean. 616489540.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 607841549.
- Deban etxebizitza alokagai abuzturako. 3 logela. Garajea eta terraza itsasora bistarekin. 605728340.
- Senar-emazte arduratsuek etxea hartuko lukete alokairuan. 667060292..

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal industriala salgai. 667895597.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Eibarko erdialdean. 631419458.
- Garajea edo parzela alokatuko nuke Ipuruia zonaldean edo hortik gertu. 628933542.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631141454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 638515953.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 680808125.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 674730806.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak, tabernak... garbitzeko. 688758630.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta manikura egiteko. 61321786. Alejandra.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo asteburuetan ere. Esperientzia. 641756213. Mari Jose.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). 612202116.

4.2. Langile bila

- Gaixo batek zaintzailea behar du etxean laguntzeko. Orduka. luengo41@gmail.com
- Pertsona behar da Eibarko Zapore izozkidendan lan egiteko. Zapatu eta domeketan (17:00-19:00). 699913141. Maite.
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Manikura, pedikura eta depilazioan espezializatua. 603344258.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Astebururako edo jornada erdirako. 661955980.
- Pertsona behar da uztailean goizetik hurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakitea baloratuko da. 670461346.
- Ermuko Aierra Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako

gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com

- Ermuko hortz-klinika baterako auxiliarrak edo administrariak behar da uztailearen amaiera arte (baja bat kubritzeko). Goizez. niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Monitorrea salgai. Kalitate onekoa eta ia berria (Monitor gaming- HP 25x, 24.5", Full HD, 144 Hz, 1 ms). Prezioa: 100 euro. 649105442. Elena.

6.4. Bestelakoak

- Apirilaren 28an, Elgetako "Bolatoki" parkean 9 urteko neskatila baten beroki urdin argia laga genuen ahaztuta. Aurkitu baduzu, deitu mese-dez. 615767048.



BAZKIDE zertarako?

Euskara herriko esparru ezberdinetan sustatzeko,
hala nola tokiko establezimenduetan

Euskeraz primeran!

Eibarko denda eta tabernetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa da Euskeraz Primeran! Tabernako barraren edo dendako mostradorearen alde batean zein bestean daudenek euskara erabiltzeko aukera izatea da ekimen horren helburua. Euskara-maila ez da berdina dendari eta tabernari guztien artean, baina hori ez da oztopo hasierako hitza, behintzat, euskaraz izateko. Hainbat euskarri eta bestelako laguntza banatzen ditugu urtero egitasmoan izena emanda duten lauhundik gora establezimendutan: hiztegiak, posterrak, mantelak... Itzulpen-zerbitzua ere eskaintzen diegu, doan.

zarelakogara

Egin zaitez bazkide!



Eibarko Musika Eskola

24-25
Ikasturterako

MATRIKULAZIOA
Maiatzaren 22tik aurrera

Ezagutu gaitzazu hemen:

facebook.com/eibarkomusikaeskola
instagram.com/eibarkomusikaeskola
youtube.com/@eibarkomusikaeskola
eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola

musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725

